

**PORNOGRAFIA:
*ALARMISMO ETA
SEXUFOBIAREN
AURREAN,
SEXU-HEZKUNTZA
FEMINISTA!***

STEILAS- 2024ko maiatza



GAURKOAN...

I. BLOKEA:
TESTUINGURUA

II. BLOKEA
PORNOGRAFIAREN ERAGINA (GAZTEENGAN)

III. BLOKEA:
NOLA HELDU PORNOGRAFIAREN KONTSUMOARI?



I.BLOKEA

TESTUINGURUA

DATUAK:
PORNOGRAFIA ETA
GAZTEAK

SEXUALITATEAREN INFORMAZIO ITURRIAK

- **Berdinen taldea (%67)**
- **Pornografia (%40)**
- **SSDak eta internet (%37)**
- **Familia (amak gehienbat %32)**
- **Ikastetxea (%26)**



BERDINEN TALDEA %67

- Zalantzak eta iritziak talde ez-mistoetan erosoago partekatzen dituzte.
- Talde mistoetan, mutilak izaten dira gehien hitz egiten dutenak eta, oro har, gaiaz maizago hitz egiten dutenak, modu esplizituagoan eta informazio gehiagorekin.
- Mutilentzat maskulinitatea sozializatzeko modu bat den bitartean, neskek, "zintzotzat" hartutakoek edo "puta" etiketa esleituta ez dutenek behintzat, zuhurtzia gehiagorekin jokutzen dute eta jende gutxiagorekin hitz egiten dute gaiaz.
- Generoaren araberako banaketa hau ez da hain nabarmena berdinen arteko sozializazio-espazioetan ondorengo faktoreak betetzen direnean:
 - 1) Maskulinitate eredu anitzagoen edo maskulinitate ez hain normatiboen presentzia dagoenean.
 - 2) Aniztasun sexualaren eredu gehiago dagoenean.
 - 3) Kontzientzia eta ezagutza feminista duten neska gehiago daudenean.

PORNOGRAFIA BERA (ZUZENEAN) %40

- Generoen arteko arrakala pornografikoa (mutilek neskek baino %12 gehiago kontsultatzen dute)
- Ikusi dugun bezala, modu pasiboan zein aktiboan.
- Jakina, ikasteko biderik zuzenena eta didaktikoena da.
- Pornografia hezkuntza afektibo-sexualeko "irakasle" gisa ulertzen dute, ez baitute epairik jasoko.
- Lehengo datuetan esan bezala, gazteen %48ak pornografia sexualitatea ikasteko iturri fidagarri gisa balioztatzen du.
- Eta kezkarriena, %30arentzat pornografía informazio-iturri bakarra da!!!!

SARE SOZIAL DIGITALAK ETA INTERNET %37

- Berdinen taldera oso lotua dagoenez hau informazio-iturri nagusia ere bada.
- Informazio-trukaketa eduki pornografikoa bidaliz, jasoz eta trukatzuz egiten da.
- Bitarteko digitalek, batzuetan, sexu-hezkuntzako «aholkularitza-zerbitzu» gisa funtzionatzen dute, batez ere aktibisten, influencer-en edo profesionalen orrialdeetan egindako kontsulta edo galderen bidez.
- Kontsulta hauek, bereziki, oso garrantzitsuak dira LGTBI pertsonentzat. Ez baitute gertuko erreferenterik, eta sare sozialak gorputz, identitate eta sexualitate-eredu anitzen erakusleho erraldoiak dira.

FAMILIA %32

- Amak dira kontsultatuenak.
- Ondoren, aitak %18an
- Eta neba-arrebak %8an.
- Hori bai, faktorerik erabakigarriena familiarekin hitz egiteko, informazioa aurretik eskolan landu izana da. Hortaz, eskolak “katalizatzaile” gisa eragiten du.

IKASTETXEA %26

- Jasotako hezkuntza afektibo-sexuala (batez ere sexuala da)
- Lanketa hau nahiko urria da eta ez ditu gure gazteen beharrak betetzen. (Sexu-hezkuntzari buruzko “saio berezien” orden batzuetan bestekoa 4 ordutakoa da)
- Kanpo kontratazioen bidez egiten dira.
- Berandu iristen dira, nerabe gehienek esperientzia erotikoak izan baitituzte eta genero-rol eta estereotipoen eraginpean egon baitira.
- Saio hauek ez dute eduki nahikorik. Oro har, ez da plazerari ezta sexualitatearen dimentsio zabalari buruz hitz egiten.
- Kanpoko profesionalen soslai sozio-sanitarioa bada edo irakasleek eurek gaia lantzerantz animatzen badira, lantzen diren edukiak, gehienbat, anatomikoak eta SBI edota haurdunaldi posibleen prebentzioari buruzkoak baino ez ditu lantzen.

HAINBAT DATU*

- Nerabeen ia %54ak 13 urte bete aurretik kontsumitu du pornografia lehen aldiz.
- Ia %9ak 10 urte bete aurretik.
- Oro har, pornografiaren kontsumo adinaren batezbestekoa 11 urtekoa da.
- Kontsumitzaile aktiboak zein pasiboak dira.
- Mutilek neskek baino %12 gehiago kontsumitzen dute.

**(Des)información sexual: pornografía y adolescencia [Save The Children, 2020]*

HAINBAT DATU*

- Nerabeen %48ak pornografia sexualitatea ikasteko iturri fidagarri gisa balioztatzen du.
- Nerabeen %30arentzat pornografía informazio-iturri bakarra da.
- Pornografia ikusi duten nerabeen % 20ak, gutxienez behin, argazki edo bideo intimoak partekatu dituzte.
- Nerabeen %55ari ikusitakoa praktikan jartzea gustatuko litzaioke.
- Eduki pornografikoak ikusi dituzten nerabeen ia %14ak eszenaren bat praktikara eraman du.


Pornografia nerabezaroan

13-17 urte arteko gazteak


● Bai ● Ez

Kontsumoa

Ikusi duzu inoiz pornografia?



Azken hilabetean ikusi duzu pornografia?



Eragina

Ideiak eman dizkit



Praktikan jarri nahi dut




Praktikan jarri dut




Eredua

Pornografiak betetzen ditu zure itxaropenak?





Harreman berdintasunezkoak daude pornoan?



Eduki bortitzak dira?



Nolako rolak gustatzen zaizkizu?



**NON JARTZEN
DUGU FOKUA?**

OHIKO GALDERAK:

- **Pornografia txarra da?**
- **Zein neurritan da arriskutsua pornografia gazteentzat?**
- **Pornografia sexu-hezkuntzarako tresna al da?**

ERANTZUNA EZEZKOA BADA ERE...

Zer da galdera horien atzean dagoena?

IKUSPEGI EZKORRA:

- Ikuspegi moralista.
- Sexufobia
- Arriskuaren ikuspegia.
- Beldurra/Izua/Terrorea eta alarmismoaren kultura.

HORREGATIK, OSO GARRANTZITSUA DA...

- 1) **Aurreko ikuspegi guztiak ekiditea, noski!**
- 2) **Pornografia gizartearen eredu sexualaren isla dela ikustea, eta ez alderantziz.**
- 3) **NOLA (*moduak*) eta NONDIK (*iturria*) hezten dugun aztertzea beharrezkoa da, ez bakarrik ZER IKUSTEN DUTEN (*edukia*) edo ZEREKIN IKASTEN DUTEN (*bitartekoa*). Baina batez ere, jakitea zein den gure abiapuntua eta testuingurua. Hau da, **nola bizi dugun (gure) sexualitatea.****



**PORNOGRAFIA
TXARRA AL
DA?**



**PELIKULA
ERROMANTIKOAK
TXARRAK AL
DIRA?**



**OCHO
APELLIDOS
VASCOS**

Una película de
EMILIO MARTÍNEZ-LÁZARO

**UMOREZKO
PELIKULAK
TXARRAK AL
DIRA?**



**BELDURREZKO
PELIKULAK
TXARRAK AL
DIRA?**

ONDORENGO ERRELATOA SORTZEN ARI GARA...

**EGUNGO GAZTEAK GERO
ETA LEHENAGO ARI DIRA
PORNOGRAFIA
KONTSUMITZEN!**

BAINA BESTE ERRELATO HONEK BEHARKO LUKE...

**EGUNGO GAZTEAK GERO
ETA BERANDUAGO ARI DIRA
SEXU-HEZKUNTZA
JASOTZEN!**

ONDORENGO ERRELATOA SORTZEN ARI GARA...

**SEXU-INDARKERIA KASUEN
GORAKADAREN ARDURA
PORNOGRAFIARENA DA!**

BAINA BESTE ERRELATO HONEK BEHARKO LUKE...

**SEXU-INDARKERIA KASUEN
GORAKADAREN ARDURA
SEXU ERASOTZAILEENA DA!**

ONDORENGO ERRELATOA SORTZEN ARI GARA...

**GAZTEAK PORNOGRAFIAN
IKUSTEN DUTENA
PRAKTIKAN JARTZEN
SAIATUKO DIRA!**

BAINA BESTE ERRELATO HONEK BEHARKO LUKE...

**GAZTEAK, EREDU
ANITZETATIK IKUSTEN
DUTENA PRAKTIKAN
JARTZEN SAIA DAITEZKE!**



EGUNGO **EREDU SEXUALA**

GURE EREDU SEXUALA...


**NAGUSIKI, ERREPRODUKZIOARI LOTUTAKO
EREDUA DA...**

...ETA HONEN ONDORIOZ...

**IDENTITATEAK, GORPUTZAK, DESIRAK
eta PRAKTIKAK ere**

...ERREPRODUKZIOAREKIN LOTZEN DITUGU!

GURE EREDU SEXUALAREN EZAUGARRIAK



- **ZISHETEROSEXISTA**
- **ANDROZENTRIKOA**
- **ERREDUKZIONISTA**
- **KOITZENTRIKOA**
- **GENITALIZATUA**
- **FALOZENTRIKOA**
- **MONOGAMO-EZKONTIDEA**
- **MORALISTA-ARAUTZAILEA**
- **ADULTISTA**

PORNOGRAFIA: **Zer da?**

DEFINIZIOA

Sexu-jarduerak esplizituki deskribatzen, aurkezten edo erakusten dituen lan literarioa, artistikoa, zinematografikoa eta abar, sexualki kitzikatzeko helburuarekin.



PORNOGRAFIA(k)

Pornografia *mainstream*, industrialala edo komertziala:

- Gehien kontsumitzen eta gailentzen den pornografia: eredu matxista, arrazista, lodifoboa, gerontofoboa,...

Pornografia *feminista/etikoa/indie*:

- Pornografia *mainstream*-aren iruditeria eta lan-baldintzak zalantzan jartzen dituztenak.
- Emakumeentzat eta bestelako sexualitate ez ohikoentzat alternatiba erotikoa bilatzen dituztenak.

Pornografia *amateur* + *SSD/Ligatzeko APP-ak*

- Gozamen propiorako erabiltzen dena.
- Merkatu industrialetan ere komertzializatu daitekeena.



MAINSTREAM PORNOGRAFIA MATXISTA:

- Pornografia bera **mugagabea, irisgarria eta doakoa** da. Baina bere **narratiba oso eskasa eta errepikakorra**.
- Indarkeriak, **adostasun ezak eta desberdintasunak markatutako harreman sexualak** adierazten ditu.
- Nahiko ohikoa da **emakumearen min fisikoa erotikotzat agertzea**.
- **Ez du emoziorik ezta afektibitate**rik erakusten.

- **Gizonezkoen sexu-desira zentrala** da.
- «Koitoaren aurretiko eta ondorengo momentuen» **gidoi zehatza** markatzen du.
- **Ez du zaintza-denborarik edo intimitaterik** aurreikusten.
- **Beste praktika erotiko batzuk ukatzen ditu.**
- **Gorputz-atalak sinbolikoki zatikatzen ditu**
- Beste genero-identitate eta sexu-orientazio batzuk **ikuspegi bitar eta heterosexualetik** irudikatzen ditu.

MAINSTREAM PORNOGRAFIA ETA GENERO-ROLAK

- AKTIBOA/PASIBOA
- SUBJEKTUA/OBJEKTUA
- EDUKIA/EDUKIONTZIA
- INIZIATIBADUNA/INIZIATIBA EZA



PORNOGRAFIA ETA GENERO-ROLAK



- **PENETRATZAILEA/PENETRATUA**
- **DOMINANTEA/SUMISOA**
- **DESIRATZAILEA/DESIRATUA**
- **PROBOKATUA/PROBOKATZAILEA**
- **HELDUA/HELDUGABEA**

PORNOGRAFIA MATXISTAREN KATEGORIA "DIDAKTIKOAK"

- Gaika antolatuta.
- Ikusgarriak/erakargarriak
- Deskriptiboak
- Dominazio-sumisio logika elikatzen dute.
- Praktikak klasifikatzeko (eta ikasteko) erraztasunak

AIRE LIBRE

AMATEUR

ANAL

ASIÁTICAS

BUKKAKE

CASTING PORNO

COLEGIALAS

CORRIDAS

CULAZOS

CULOS GRANDES

DOBLE PENETRACIÓN

ESPAÑOLAS

FIESTAS XXX

FISTING

FOLLADAS

GAFAS

GANGBANG

GIMNASIOS

GLORY HOLE

GORDAS

INCESTOS

INTERRACIAL

JOVENCITAS

LATINAS

LESBIANAS

MADURAS

MAMADAS

MASAJES

MASTURBADAS

MILF

MORENAS

NEGRAS

ORGÍAS

PELIRROJAS

POLLAS GRANDES

POV

RUBIAS

SECRETARIAS

SEXO DURO

SIRVIENTAS


SITIOS PÚBLICOS

TETITAS

TETONAS

TRÍOS

WEBCAM X



II.BLOKEA

**PORNOGRAFIA
INDUSTRIALAREN
ERAGINAK
(GAZTEENGAN)**

ZELAN ERAGITEN DU POSITIBOKI?

- Pornografia beren **sexualitatea esploratzeko eta beren zaletasun eta fantasia sexualak ezagutzeko bitartekoa** izan daiteke.
- Gazte batzuek pornografia sexuari eta harremanei buruzko **informazio-iturri gehigarri gisa erabil dezakete**.
- Pornografiak **tentsio sexuala arintzeko eta ingurune pribatu eta seguru batean beren nahiak aztertzeko bide bat** eskaini dezake.
- Pornografiak **sexu-orientabideak, genero-identitateak eta sexu-praktikak azal diezazkieke** gazteei.


ZELAN ERAGITEN DU NEGATIBOKI?

- Nagusiki, **harreman sexualen ikuspegi erabat desitxuratua eraikitzea** dakar.
- **Plazeraren ulerkeran** eta honen eskuragarritasun zein zilegitasunaren ideian (generoa dela eta).
- **Maskulinitate- eta feminitate-eredu jakin batzuk erreproduzitzea**, gizon eta emakume izatearen ideia tradizionalarekin loturikoak.
- **Gorputzaren hainbat puntu erogenoen inguruko ezjakintasuna.**
- **Ondorio fisiko, fisiologiko eta psikologiko anitzak:**
Autopertzepzio- eta autoestimularazak, eiakulazio-kontrol eza, sexu-desirarik eza, zauriak edo traumatismoak, harremanetan arazoak,...

ZELAN ERAGITEN DU NEGATIBOKI?




- Sexu-indarkeria: praktika erotikoetan, sare sozialetan (*sexting*, *grooming*, *porno-mendekua...*), harreman afektiboetan...
- Sedukziorako prozesuetan trebetasunik eza.
- Praktika sexualak eta gorputzak aseptikoak direla ulertzea.



III.BLOKEA

**NOLA HELDU
PORNOGRAFIAREN
KONTSUMOARI?**

**ESKUBIDE
SEXUALAK
OINARRI**



ESKUBIDE SEXUALEN ADIERAZPEN UNIBERTSALA

1. Askatasun sexualerako eskubidea:

Honek norbanakoen sexualitatea bete-betean adierazteko aukera ezartzen du, eta bizitzako edozein garai eta egoeratan eman daitezkeen indarkeria, esplotazioa eta sexu-abusu mota guztiak alde batean utzi nahi ditu.

2. Gorputzaren autonomia, osotasun eta segurtasun sexualerako eskubidea:

Honek norberaren bizitza sexualari buruzko erabakiak hartzeko gaitasuna barne hartzen du eta etika pertsonal eta sozialaren testuinguruan; -torturatu gabeko, mutilaziorik gabeko edota inolako indarkeriarik gabeko- gure gorputzen gaineko kontrola izan eta gorputzez gozatzeko gaitasuna ere kontuan hartzen ditu.

3. Pribatutasun sexualerako eskubidea:

Alor intimoan hartutako erabakiak eta portaerak zilegitzat hartzen ditu, besteen sexu eskubideak eragozten ez badituzte, noski!

4. Berdintasun sexualerako eskubidea:

Sexu, genero, sexu-desira, adin, maila sozioekonomiko, talde etniko, erlijio edota muga fisiko/kognitiboarekin lotutako edozein bereizkeriari aurre egiten dion eskubidea.

5. Plazer sexualerako eskubidea:

Sexuaz gozatzeko eta atsegina edo plazera hartzeko eskumena litzateke (baita autoerotismoa ere). Hau da, ongizate fisiko, intelektual eta espiritualaren iturri den plazerari erreferentzia eginez.

6.Emoziozko sexu-adierazpenerako eskubidea:

Plazer erotiko edota sexu-ekintza soiletatik haratago doa, eta sexualitatea emozioen eta afektuen bidez ere adierazi daitekeela aitortzen du, fereka, goxotasun eta maitasunaren bidez.

7.Sexu-elkartze askerako eskubidea:

Ezkontzeko ala ez ezkontzeko, banatzeko eta edozein harreman-elkartze arduratsua osatzeko aukera eskaintzen du.

8.Ugalkortasunari buruzko erabakiak libre eta arduratsu hartzeko eskubidea:

Haurrak eduki ala ez, haurren kopurua eta haur bakoitzaren arteko denbora-tarteak erabakitzeko eskubidea da, baita ugaltze-metodoak baliatzeko eskubidea ere.

9.Ezagutza zientifikoan oinarritutako informazioa jasotzeko eskubidea:

Prozedura zientifiko eta etikoen bidez sortzen den sexu-informazioa irisgarritasuna edukitzea ahalbidetzen du, hau modu egokian zabalduz gizarte osoarengana heldu dadin.

10.Sexu-hezkuntza integralerako eskubidea:

Sexu-hezkuntza bizitza osoan zehar irakatsi behar da, jaiotzetik beretik zahartzarora arte, eta gizarte erakunde guztiek parte hartu beharko lukete eskubide honen betetzean.

11.Sexu-osasunaren arretarako eskubidea:

Sexu arazo, kezka, gaixotasun eta desoreka guztien prebentzioa eta tratamendua kontuan hartzen dituen eskubidea.



SEXU-HEZIKETA
FEMINISTA

ZER DA?

- **Ikuspegi feministatik abiatuta**, norbere **sexualitatearen ezagutzan, sentitzean eta ekitean eragina duten estrategia pedagogikoen multzoa** da.
- **Jarreretan, maila kognitiboan eta afektiboan** eragin zuzena daukan heziketa.
- **Heziketa prozesu jarraia da**, sexualitatearen bizipenari paraleloa dena eta pertsona bakoitzaren garapen eta testuinguruaren araberakoa dena.
- Haurrei eta gazteei beren **bizipen sexualak askoz modu autonomagoan aukeratzen eta gozatzen laguntzen** die.

SEXU-HEZIKETA FEMINISTAREN ARDATZAK

- 1) Ikuspegi feminista
- 2) Eskubideen perspektiba
- 3) Babes integralaren perspektiba
- 4) Begirada ebolutiboa
- 5) Ulermen konplexua
- 6) Ulermen kokatua
- 7) Gaitasun kolaboratiboa



HEZKIDETZA SEXUALAREN PRINTZIPIOAK

- 1) **PERSPEKTIBA FEMINISTA:** Heteropatriarkatutik eratorritako maskulinitateen eta feminitateen eraikuntza kulturalak sexualitatearengan, botere harremanengan, biolentziengan edota esku-hartze psikosozialengan eragina dutela ulertzea.
- 2) **ESKUBIDEEN PERSPEKTIBA:** Giza-eskubide zein eskubide sexualen errespetua eta bermea etengabe presente izatea!
- 3) **BABES INTEGRALAREN PERSPEKTIBA:** Babes integralerako neurri juridiko, administratibo eta ekonomikoen bermea eskubide sexualak aldarrika, berma, gauza eta babes daitezzen.
- 4) **BEGIRADA EBOLUTIBOA:** Garapen sexualaren etapa desberdinetako ulermena bermatzea.
- 5) **ULERMEN KONPLEXUA:** Giza fenomeno sexualak konplexuak diren heinean, elkar-erlazionatutako aldagai anitzetan sakontzea.
- 6) **ULERMEN KOKATUA:** Giza fenomeno sexualak kokatuak dira kultura, ekosistema erlazional eta subjektu partikularretan gertatzen diren heinean. Beraz, gure ulermena eta esku-hartzeak egoera zehatz eta berezi bakoitzera moldatzea.
- 7) **GAITASUN KOLABORATIBOA:** Sexualitatea bezalako fenomeno global bat ulertzeko zein honetan eraginkortasunez esku-hartzeko, elkarrizketa eta kooperazio etengabearen aritzeko kapaza den lan-talde oso baten presentzia bermatzea eta bestelako zerbitzuekin koordinatzea.

**SEXU-HEZIKETA
FEMINISTAREN
EREMUAK**

SEXU-HEZIKETA FEMINISTAREN EREMUA

- **Gorputzaren garapena** (*erreprodukziorako ahalmena, gorputz aldaketak, gorputz aniztasuna,...*)
- **Harreman interpertsonalak [sexualak diren heinean]** (*familia, lagun taldea, “bikote” harremanak, eskolakideak...*)
- **Erraminta pertsonalak** (*autoestimua, burujabetza, autonomia, komunikazioa, nahiak, mugak, negoziazioa, erabakiak hartzea,...*)
- **Jokabide sexuala** (*plazeraren kudeaketa, desiraren kudeaketa, jarduera erotikoak,...*)
- **Osasun sexuala** (*higiene pertsonala, gorputz atalen arakatzeko prebentiboa, genitalen bidezko infekzioak eta hauek zein haurdunaldiak ekiditeko metodoak,...*)
- **Gizartea eta kultura** (*genero rola, sexu eta genero aniztasuna, arau sexualak, pornografia,...*)

**GURE IKUSPEGIA,
FEMINISTA;
GURE EREDUA,
BIOGRAFIKO-
HEZITZAILEA**

SEXU-HEZKUNTZAREN IKUSPEGI EDOTA EREDUAK

- **IKUSPEGI edota EREDU BIO-MEDIKOA**

- **IKUSPEGI edota EREDU MORALA**

- **IKUSPEGI edota EREDU IRAULTZAILEA**


- **IKUSPEGI edota EREDU BIOGRAFIKO-HEZITZAILEA**

*ARRISKUAREN
PEDAGOGIA*

AZKEN HAU GUREA!

EREDU HONEN ERAGINAK

- **Gorputzaren mapa osoari arreta** ematea lortzen du.
- Aldi berean, **gorputzetik eta hedonismotik haragoko planteamendua** ekartzen du. (egiturazko planteamendua)
- Honi esker, **ez dugu sexualitatea erreprodukzioaren helburura mugatzen**, pertsonaren dimentsio sexual osoari baizik.
- Ikuspegi honek **askatasuna eta arduraren arteko orekari garrantzia** ematea ekartzen du.



NOLA ERAGIN CURRICULUMEAN: Programazio didaktiko sexufilikoa

**HEZITZAILEON
CURRICULUM (sexual)
EZKUTUA:
ETA GUK, ZELAN BIZI DUGU
SEXUALITATEA ETA
PORNOGRAFIA?**



↓ FUNTSEZKOA ↓

**Gu eredu garen heinean,
gure sexualitatearen
aspektuak arakatzea eta
horren arabera heztea.**

**Beti hezten gaude, ezer
kontzienterik egiten ez
dugunean ere.**

HAUSNARKETARAKO GALDERAK

- **Sexualitatea dimentsio orokor gisa** kontuan hartzen duten hezitzaileak gara?
- **Noiz eta zein egoeratan** kontuan hartzen edo lantzen dugu sexualitatea?
- Zer nolakoa da **gure jarduera pedagogikoa**?
- Gure jarduera pedagogikoan **betaurreko moreak etengabe** ditugu jantzita?
- Zein uste dugu dela **gure jarrera**? Autoritarioa, demokratikoa, permisiboa,...?
- Nola harremantzen gara **gertukoekin**? Kontaktuzko eta afektuzko pertsona bat naiz?
- Zer nolakoa da **gure gorputz-adierazpena**?
- Nola erabiltzen dugu **gorputza**?
- Gazteekiko **afektuzko adierazpenak** ditugu?
- **Gure eguneroko egoera emozionala** gazteekin partekatzen dugu?
- **Gure desiraren orientazioa** libreki elkarbanatzen dugu gazteekin?
- **Gure janzkerari buruzko hausnarketa** sinbolikorik egiten dugu?
- Zein da **transmititzen dugun maskulinitate/feminitate eredua**?
- Zein da gazteek gurekiko duten **konfiantza-maila**?
- Gazteen harremanak kontrolatzen ditugu ala horiek ezagutu eta horietan **bidelagun gisa eragiten** saiatzen gara?
- Gazteen **itxura fisikoari buruzko aipamenak** egiten ditugu?
- **Gure autoestimua hitz egiten** dugu gazteekin?

EZAUGARRI KURRIKULARRAK: Helburuak

- **Sexualitatearen dimentsio guztiak lantzerantz bideratuta dauden** (eta pornografiaren) hausnarketa kritikoa sustatzen duten **jarduerak diseinatzea**.
- **Adostasun sexualaren (ez baimenaren/kontsentimenduaren) ideia** lantzeko edukiak eta metodologiak txertatzea.
- **Informazio zuzena** eskuratzeko bideak eta tresnak ematea.
- **Arau kulturelek eta genero-arauek** haurrei eta gazteei beren sexualitatean **nola eragiten dieten** aztertzeko edukiak txertatzea.
- **Harreman erotiko toxiko edo indarkeria sexualei loturiko egoera jakin batzuk** maneiatzeko prozedurak eta tresnak zehaztea.

**KONPENTENTZIA
ESPEZIFIKOAK
ETA OINARRIZKO
JAKINTZAK**

- **Hizkuntzak eta Literatura**

- *Pornografiaren kategorien azterketa kritikoa eta etimologikoa (frantsesa, ingelesa,...).*
- *Ligatzeko eta sedukziorako euskarazko hiztegia.*
- *Narratiba eta poesia erotikoaren lanketa.*
- *Gorputz atalen izen teknikoak landu.*
- *Genitalekin edota praktika erotikoei loturiko ohiko adierazpenak lantzea. (batez ere gaztelerazkoetan: "esto es la polla", "esto es un coñazo", "que te follen/"que te jodan", "que te den por el culo", "chupamela", "me la suda", "no me toques los cojones/el coño", "de puta madre", "me cago en tu puta madre",...).*
- ...

KONPENTENTZIA ESPEZIFIKOAK ETA OINARRIZKO JAKINTZAK

- **Matematika**

- *Pornografiaren inguruko datu anitzen (mugitzen duen ekonomia, zenbateko kontsumoa,...) azterketa eta kalkulua.*
- *Sexu-lanean existitzen diren portzentaiak lantzea (mugitzen duen ekonomia, zenbateko kontsumoa,...).*
- ...

- **Natur-zientziak, Fisika-Kimika, Biologia, Geologia, Geografia eta Historia**

- *Giza erantzun sexualaren faseak (desira, kitzikapen, meseta, orgasmoa eta erresoluzioa).*
- *Profilaktiko zein antisorgailuen elementu fisiko eta kimikoen azterketa.*
- *Pornografiaren inguruko datuak herrialdeka + hauen idiosinkrasia pornografikoak.*
- *Pornografiaren garapena historian zehar.*
- *Historian edo Artearen historian gorputzen errepresentazioak historian zehar.*
- ...

KONPENTENTZIA ESPEZIFIKOAK ETA OINARRIZKO JAKINTZAK

- **Teknologia eta Digitalizazioa**

- *Profilaktiko eta antisorgailuen teknologia/mekanika eta honen bilakaera historian zehar.*
- *Jostailu erotikoen funtzionamendu motore/elektriko/ergonomikoa.*
- *Sare Sozial Digitaletan jazotzen diren sexu-indarkeriak: grooming, porno-mendekua,...*
- *Ligatzeko aplikazioen teknologia eta erabilera*
- ...

- **Musika, Plastika eta Adierazpen artistikoa**

- *Sedukziorako erritu eta dantza kulturalak.*
- *Pelikula pornografikoen errepresentazio bisualaren elementuen kritika.*
- *Musika erotikoa zinemagintzan eta bere ezaugarriak.*
- *Industria kulturaletako gorputzen eta estetikaren iruditeria bisualaren kritika.*
- *Pornografiaren presentzia adierazpen/mugimendu artistikoetan.*
- ...

KONPENTENTZIA ESPEZIFIKOAK ETA OINARRIZKO JAKINTZAK

- **Gorputz hezkuntza**

- *Pornografian azaltzen diren postura ezinezkoen azterketa kritikoa “umoretik” – Twister jolasa erabilia (erresistentzia, indarra, giharrak...)*
- ...

- **Balio etikoak, Ekonomia, Pentsamendu Kritikoa eta Autonomoa,...**

- *Sozialki, politikoki eta zientifikoki emakumeen sexu askapenean ekarpenak egin dituzten emakumeak ezagutzea.*
- *Pornografia komertzialarekiko kritikoak diren eta industria pornografikoaren parte diren emakume kritikoen iritzia ezagutzea.*
- *Kristalezko sabai sexuala edota orgasmo-arrakala bezalako fenomenoak aztertzea.*
- *Lan banaketa sexualaren testuingurutik abiatuz, sexualitatean zaintza lanen beharra eta garrantzia lantzea,*
- *Pornografiaren industria eta ekonomiaren azterketa.*
- ...

**HEZKIDETZAREN
ZUTABEEN BIDEZKO
LANKETA**

**HEZKIDETZAREN
ZUTABEAK
OINARRITZAT HARTU
PORNOGRAFIA (ETA
SEXUALITATEAREN)
LANKETARAKO!**



1. PENTSAMENDU KRITIKOA SEXISMOAREN AURREAN

- Ipuinetako, abestietako edo irudietako pertsonaia femeninoen eta maskulinoen jardunen analisia.
- Material, ipuin eta abesti ez-estereotipatuen bilaketa.
- Narrazioetan genero-rolen aldaketa.
- Gorputzaren eta anatomiaren gaineko ezaguera integrala eta kontrola.
- Emozioen lanketa eta hauen onarpena eta moralizazio eza.
- Norbere zein besteen gorputzaren mugak lantzea kontaktu fisikoari dagokionez.
- Norbere zein besteen desiraren mugak lantzea adostasunari dagokionez.
- Afektuzko harreman motak eta sozialki ematen den hierarkizazioa lantzea.
- Komunikabideetako gorputzen eta estetikaren iruditeriaren zergatiak kritikoki aztertzea.

1. PENTSAMENDU KRITIKOA SEXISMOAREN AURREAN

- Heteroarauaren inguruko azterketa kritikoa.
- Maitasun erromantikoaren mitoaren eta monogamia-ezkontidearen lanketa sakona egitea.
- Gelako gorputzen inguruko lanketa egitea (ezaugarri berdinen zein desberdinak).
- Sexualitatea eta erotismoaren arteko desberdintasunak lantzea.
- Eredu sexual hegemonikoa aztertzea (erreproduktiboa, koitozentrikoa, falozentrikoa, finalista, adultista, ezkontidea,...)
- Giza erantzun-sexuala aztertzea.
- Pornografiaren iruditeria sexista aztertzea.
- Haien harremanak autoebaluatzea, genero-estereotipoei, sexismoari eta jokabide zein praktika sexualei dagokionez.
- ...

2. HIZKUNTZAREN ETA IRUDIEN ERABILERA EZ-SEXISTA

- Hizkuntzaren erabilera ez-sexista, harremanetan erabiltzen diren adiera eta kontzeptuei erreparatuz.
- Baztertua den orokortzaile maskulinoa lantzea.
- Gorputz-atal guztien izenak lantzea (genitalenak izen infantilizatzaileak saihestuz: potota, pititoa, zakiltxoa, alutxoa, tortola, buztantxoa,...).
- Genitalak izendatzeko erabiltzen diren adieren inguruko lanketa, tabuak oinarri hartuta.
- Genitalekin edota praktika erotikoei loturiko ohiko adierazpenak lantzea. (batez ere gaztelerazkoetan: "esto es la polla", "esto es un coñazo", "que te follan/"que te jodan", "que te den por el culo", "chupamela", "me la suda", "no me toques los cojones/el coño", "de puta madre", "me cago en tu puta madre",...)
- Komunikabideetako gorputzen eta estetikaren iruditeria bisuala aztertzea.
- ...

3. EMAKUMEEN JAKITURIAREN INTEGRAZIO ETA HAIEN EKARPEN SOZIAL ETA HISTORIKOA

- Pornografia feministaren eredia eta honen filmetako zuzendari emakumezkoak ezagutzea.
- Pornografia komertzialarekiko kritikoak diren eta industria pornografikoaren parte diren emakume kritikoen iritzia ezagutzea.
- Sexualitatearen esparru desberdinetan lan egiten duten emakumeen ereduak ezagutzea (sexologoak, psikoterapeutak, fisioterapeutak, emaginak, jolas-erotikoen saltzaileak, nutrizionistak,...)
- Sozialki, politikoki eta zientifikoki emakumeen sexu askapenean ekarpenak egin dituzten emakumeak ezagutzea.
- Kristalezko sabai sexuala edota orgasmo-arrakala bezalako fenomenoak aztertzea.
- Sexualitatean zaintza lanen beharra eta garrantzia lantzea, lan banaketa sexualaren testuingurutik abiatuz.
- ...

4. GATAZKEN KONPONKETA BAKETSUA, HEZKIDETZAKO ELKARBIZITZARAKO PROIEKTUEN BIDEZ

- Sexualitatean gatazkak ekiditeko norberaren gorputza ezagutzea, komunikazioa, adostasuna edota negoziazioa, enpatia eta errespetua duten garrantzia lantzea.
- Ezetza esaten eta beste pertsonen ezetza errespetatzen ikastea.
- Sexu-harremanen inguruko espektatibek dituzten ondorioak aztertzea.
- Jatorri-aniztasunari loturiko mito edota aurreiritzi sexualak lantzea.
- Ligoteo osasuntsuaren lanketa.
- Sare sozialen erabilera etikoari buruz eztabaidatzea.
- Emozioen identifikazioa, onarpena eta komunikazioa azpimarratzea.
- Gustatzen zaizkigun eta gustatzen ez zaizkigun pertsonen jarrerak bistaratzea.
- Gainontzekoen gorputzen inguruko aipamenak ez egiten ikastea.
- Norbere desioa ez dela inoiz gainontzeko desioen gainera kokatzen ikastea.
- Tratu onen kulturaren garrantzia lantzea.

5. AUTONOMIA PERTSONALA ETA INDEPENDENTZIA EKONOMIKOA

- Norbere gorputzaren gaineko ezagutza eta kontrola lantzea. (behar fisiologikoak, gorputz-atalen funtzioak, plazererako potentzialitateak,...)
- Norbere gorputzaren gaineko zaintza eta higiena lantzea.
- Norbere desio eta fantasia erotikoen inguruko identifikazioa eta hausnarketa.
- Menarkia, premenopausia, perimenopausia eta postmenopausia ezagutaraztea hauei loturiko egoera zein beharrak lantzea.
- Fluxu baginalaren jarioak eta bestelako isurketak, bat-bateko tentetzeak edota bulbari loturiko bestelako egoerak ezagutaraztea.
- Gaueko poluzioak eta bestelako isurketak, bat-bateko tentetzeak edota zakilari loturiko bestelako egoerak ezagutaraztea.
- Bularren esplorazio prebentiboak ikastea.
- Barrabilen esplorazio prebentiboak ikastea
- Prostituzioa lantzea.
- Zaintza lanen eta lan produktiboen arteko edonolako orekaren inguruko lanketa egitea.
- Sexu-eskubideen lanketa egitea.

6. ESPAZIOAK IKASTETXEAN ETA ESKOLAZ KANPOKO JARDUERAK ETA JARDUERA OSAGARRIAK

- Espazio publikoa, espazio pertsonala eta espazio intimoen inguruko desberdintasunak lantzea.
- Sozialki espazio motaren arabera ematen den praktika sexualen hierarkizazioa lantzea.
- Sozialki espazio motaren arabera ematen den janzkeraren desberdinketa lantzea.
- Komunak espazio seguruak eta intimoak direla lantzea.
- Kirola edota ariketa fisikoen eta osasun sexualaren arteko interrelazioa lantzea.

8. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN PREBENTZIOA ETA INDARKERIA KASUETAN ESKU-HARTZEA

- **Maskulinitate eredu parekideen inguruko lanketa egitea.**
- **Feminitate ahaldunduen inguruko lanketa egitea.**
- **Pornografia komertzialaren iruditeriak emakumeari buruz transmititzen duen irudi sinbolikoki aztertzea.**
- **Pornografia komertzialean agerikoa den dominazio-sumisio logika aztertzea.**
- **Eguneroko matxismo sinbolikoen edota mikromatxismoen lanketa egitea.**
- **Ziberindarkeria: sexting, sextortsioa, gromming, pornomendekua, ciberstalking eta bestelako fenomenoen atzean dagoen genero-indarkeria aztertzea.**
- **Maitasun erromantikoaren mitoa lantzea.**
- **Harreman afektibo osasuntsu eta ez toxikoen inguruko irizpideak lantzea.**

GOMENDIO OROKORRAK

- **Haurren eta gazteen errealitatean buru-belarri murgiltzea** (*birziklatzea, konektatzea, ezagutzea, bustitzea...helduzentrismoa ekidinez*).
- **Etapak bakoitzean, adingabeek sexualitatearekiko eta harreman afektiboekiko duten interesa behatzea.**
- **Pornografiaren errealitate osoa eta mitoak etengabe ikusaraztea** (*genero estereotipoekin lotuz*).
- **Teknologiak, internet eta sare sozialak ikuspegi positiboarekin lantzea.**
- **Elkarrizketarako gune seguru eta organikoak sortzea, ez soilik zerbait gertatzen denean.**
- **Mutilekin bereziki lanketa zehatzak egitea.**

HAINBAT MATERIAL



 labur.eus/materialak_pornoa



AZKEN OHARRAK

EGITURAZKO ERRONKAK (ETA GAKOAK)

- **Logika adultista, paternalista eta asistentzialistetatik ihes egitea.**
- **Eskola-egitura edota organigrama zabaltzearen aldeko apustua egitea.** (bitartekari sozial zein kulturalak, gizarte-langileak, psikologoak, hezkuntzako edo gazteriako udal-teknikariak, etab.)
- ***Tailergintza asko baina inpaktu gutxi* – Irakasle eta ikasleentzako bidelaguntzetarako eta aholkularitzarako baliabideak berbideratzea (ohiko prestakuntzaz haratago)**

EGITURAZKO ERRONKAK (ETA GAKOAK)

- **Eskubide sexualetan azpimarra jartzea.**
- **Hezkuntza langileak zaintzea eta babestea (*batez ere familia batzuen aurrean*)**
- **Sexu-askatasunaren berme integralari buruzko irailaren 6ko 10/2022 Lege Organikoaren 7. artikulua betetzen dela ziurtatzea (*honen jarraipena eta ebaluazioa*).**
- **Eta, batez ere, sexu-hezkuntza programazio didaktikoetan sartzea.**

ESKERRIK ASKO!

ibai@hirukilarroxa.eus

www.hirukilarroxa.eus

HIRUKI  LARROXA

